

## OLERKIA ETA JAFINKOA

Olerkaria ez da izarretatik jatsitako bat, gizaseme bat baino; ez geiago ez gitxiago, gizaseme bat. Eta gizaseme danez, inguruko mundua —mendi, ibai, lore ta jentez betea— begiz jo ta onartu bear dau egi-egiaz. Olerkariak, naiz Jainko-zale izan nai ez, erti-sorpenak burutzean, barruko dei-antsia azi ta eder-azi bear dau. Zelan? Ez Jainko-zale danak ez eztanak, ez daukie, egia esan, bertso bakoitzean Jainko-intzirika zetan ibi-llirik, zein bata zein bestea oker bardinean jausteko arriskua leukakie-ta; alan be, jatorriari ta elburuari lotsea zor dautselako, Egillearen begiera-pean jardun bearra dabe.

Zerbait sortazo bear dau olerkariak, poetak, orixe da bere dei berezia. Eta nai sifisteduna izan nai ez dauala olakorik gura adierazo, biak, sortu daroen munduorri erantzu-bearra dabe. Izadia kantatzen dau olerkariak, edo-ta bere barrena. Ai! batek, zein izadiak emona zein barne-ezpirituak ateratakoa izan, zentzunez eta zantzuz beteriko mundu bat adierazo gura dauske: izadiaren gardentasuna garraxika asi daitela, bardin gure barruko illuna argiaz edertu dedilla; eta guzti au, argia ta itzala igaroz, doala aurrera, norbaiten billa... Onek samur dagi intziri, arek trumoi antzera; ez dautso. Askotariko kantak dira izadian, eta koloreak.

Areik eta oneik, oiulariok, beukie beti gogoan, gizona Jain-

koaren seme dala: Jainkoak bere Itzaren bidez sortu zituan gauza guztiak, goikoak eta beekoak, eta onein artean Gizona batez be, Bere antz eta irudiko egifia. Edozein gizakume, dala onean dala txarrean, au autortu bearrean dago; poeta sortzaillea geiago alan be, itzaren bitartez mundua obetzen diardu-ta, Jainkoaren jardun-kide dalarik. Itza darabil, goitik datorkion arnasa, Berak ixuria. Onela jakituri liburuan: «Altsuaren jario garbia dozu, betiko argiaren dirdira, ezertan aldatu bank guztia barriztuten dauana: gizaldi bakotxeko arima onakan sarturik, Jainkoak bere adiskide ta prof eta egiten ditu» (7,25).

Olerkari zintzoa, beraz, Jainkoaren adiskide dozu, ta igarle. Eta egiaz adiskide danak ez dau egungo maite dauanik bertanbera izten, ez dau iraindu, beztu, arbuiatu edo-ta saltzen, ez itzez ez egitez. Olerkaria zinez igarle da, Altsuaren jario garbia daukana, ez loi, itsusi, ubel, garbi soilla baino. Olerkia, beraz, izan bedi nainoiz Jainkoari dagokiona, eder, garbi, txukun eta gartsua. Olan ez dana poesi akasduna dozu, erdi-osoia, eder danik esan ezin dautsoguna.

Goi-arnasak bizi-azten dau idazlea, Jainko-ezpirituz dana barrizturik; idazleak, Aren arnasaz baliatuz eta Aren kemen-suari jarraituz, ekin bear dautsa idazlanari; ez bere lurtar aizeak damotsan naikari utsalez, gora begira ta ango arnasatan murgildua baino. Auxe bedi olerkariaren neurri ta eredu, gogapenak naiz itzak, beitez goitar bizitz-kutsuzkoak. Ortik datorkio ondorenez eder-iturriak emondako indar bereziaren sortze gizatiarra. Mezulari dogu orduan poeta, Jainkoarekiko adiskidetasunak damotsan kemenaren mezulari, ots-egille, profeta, abots bete gartsuz bere mezua gizadiari bialtzen dautsona.

Guztiz mesedegarria da olako poeta erriarentzat, mundu osoarentzat. Gizonak berez, ezi ta onbideratu ezik, aize zakar dirudi, trakets, oiandar; beti aurrera doa, beera begira ta basagrifia ta atsegin zale. Emen olerkariaren lantegia; ementxe gubi ta marruzaz trebe jokatu bearra dau. Orixegaitik esan oi dogu olerkaria dala erriarentzat aurrelari, eragille. Bere asma-indar keatzaillez mundua, ots, erria iratzarri bear dau, barriztatu bigun ta mara-mara; erria bera konturatu be egiteke.

Jainkoarena dogu mundua; erriak eta jenteak Arenak dira,

Agandik errez asagotzen diranak sarri. Eta onei poetak erakutsi bear dautse, I tun Zaarreko igarleak lez, norantza bidea artu, norantza begiratu. Poetak lur osoa —gureak eusko lurra— jagon, batu ta adoretu bear dabe, zerura begira jarri; leena ta azkena, jatorria ta betiko atsedena, urrezko beatzez erakutsi. Barne-zabal izan bear ortarako, ez ito ta estua. Eguzki bete gisako.

Zer askoren artean doai bat dogu, oso berezia, Jainkoak emona, egi billa dabillen adimena, zorrotz naiz kamuts, baina aldioro lanean diarduana. Eta onen betegarri, naimena, biotza, zerbaiten billa aspertu barik dabillena.

Gaitasun biok ez dira gizonak edozelan erabiltekoak, duintasun, lleba ta kontu arduratsuz baifio. Ba-dabe euren zerregina. Ona Paul Claudel'en pentsamentu eder bat: azi ta ugarituz doa mundua, eta geuk eroan bear dogu, lagunduz, bere umotasunera. Gari-soloa nekazariarentzat lez da guretzat mundua. Zur ta ernai egin bear dau olerkariak geure gari-arloari, ez aizeak ez euri larregik, edo-ta gabaz urreratu leiteken izterbegiren batek kalterik ekarri ez dagion.

Mundua ez da, esan dogunez, gaitik ez materitik sortua, Jainkoak bere aintzarako egifia baifio; gizonak buruturiko gaiztakeriak, alan be, euren erpapean daukez munduko gauzak. Gizonak gizartea dagi eta gizartea bera pekatari da eta onek itxura motz biurria dakartso lurbirari, betarte illun goibela. Gizarte onen zati gara gu, eta geure burua motzagotu nai ez ba'dogu, gizarte obetzeari lotu ta orretan alegindu bearra daukagu; mundua ederra da, kaiola bikaina; ez, ostera, kaiola barrukoak, esan oi dogunez. Eta olerkariak batik bat kaiola barru dagozanok ondu ta obetzeari ekin bear.

Aurreko gizaldietan lez gaur be banaka batzuk ez dabe, bear bada, onartuko pentsakera au. Ezta izan be gauza erreza, munduan, diru, aragi ta era askotariko atseginetan murgilduta bizi danak, ez dau ortarako adorerik, ezta erti-lanetan gorantz egiteko be, eta ortik egazkada motzez lur-gain irristadan, gorago jagi ezifiik, or dabil olakoa barre eragiteko eran, bere ustez inork esan ez ditun gauzak, jantzi nabarrez estalita, euskal literaturari eskeintzen. Bere jokabide zuritu naiez, leenago

oe istorian inoiz agertu izan ziran joerak bir-eraiki nai ditu. Antxina bateko mundu paganua barrero zuzpeltu, orduko zentzun-nasaikeriak eta nabarmenkeriak girotu, gure gizartea biurritu. Au, oster, ez dogu inoiz be egiteko zuzena, gizonak beti aurrerantz jo bear dau-ta.

Artu-emon estua eskatzen jako gizonari; semeak aitaren odola dakar, eta odol orri uko egitea zeure buruaren kaltetan jardutea ez al dozu? Urrats bat geiago emonik, erlejifioaren eta artearen artean esan daikegu berezko kate-aria daukagula, apurtu ezina nik esango. Ez duzula Jainkoagan sinisten? Eta nor zara zu ori egin al izateko? Aske, zeure buruaren jabe zareala? Nundik eta zelan, baifia? Begira barrura ta ikus aske zareanetz, begira kanpora ta ikus aske zarean ala ez. Ez, motel, atzara aske, on do loturik zagoz aitzin-gibel, azker-eskuma. Ez izan, beraz, kaiola barne inzulika dabillen leoiaren gisako. Ez daukazu, etsi arren, Oroz gaifitekoaren eskutik iges egoterik.

Artista zarean ori be Orren muga-barru zabiltz lanean, nai ta nai ez. Makur eizu zeure burua Aren aunditasunaren aurrean; eska eiozu argia ta laguntza Aren gurentzasunari, eta zure olerlanak askotaz bizi, eder, gartsuagoak izango jatzuz. Olan jokatatu ezker, zure arnasa beti da goratzarre, zure itza beti esan-naiez betea, zure olerkia barru-kezka inarrosia, eder baizen jakingarri. Giroz jantzi barrua, goitar ederraz oartu ta bera jasoteko gai egifiik; Jainko olerkari aundiak erefia bait dozu izadian, zabal ta nasai, daukagun edertasuna. Orrela artelanak be, tokia ta aldia gaindituz, goietara zaroaze, argiaren eta eder osoaren sorburura. Gorago, gorago beti...

Goietan, poetak sakontzen saiatzen diran gaindegi orren ostean, ez ete daukagu gero, amesezko ez-ezik, egiazko atsedentegi zoragarririk? Gorago!, esan daroagu. Eder-billa minbait, ez beekoaz aseturik, baifia bai zedor billa, ezkutu ta misterio billa, edertasunaren aulkiraifio. Ez uste au ames uts edo bir-lora, gurari ez-asetuak eragindako gora-nai bat danik. Federik ez ba'dozu, ba'leiteke. Baifia ez fededunarentzat, onek ba askotaz be zabalagoak ditu goi-ozertzak; onek, fededunak, naiz gizakiari eta naiz izadiari buruzko gaietan, egaldi azkar, bizi, nasaiagoak emoteko eskubidea dau; munduko gauzak onentzat

ar-emon eta zer-ikusi barnikoagoa dabe. Olerkariak kantari dabil eta onen kantua federik ez dauanarena baino naiko giarragoa danik ezin daikezu uka.

Gerkar jakintunak antxinatik, ala-nola Platon, Aristotele, Plotino ta besteak, ederraren zerbait somatu eben; baina jakintsu arein irakatsiak kristautu zituan Agustin deunak, giza-adimenaren ekina jaso ta duinduz, gauza bikainak idatzi euskuzan. Izakiak, munduko gauzak, ederraren ezaugarri ditugula, goigoiko edertasunera garoez; Jainkoak beragana garakarz, lurreko ta inguruko ederra ezkututsu egifiik.

Gauzak euren kautan daben ederra ikusiz eta jasoz jakiturirantza doanak, alai emoten ditu here oinkadak, gauzak eder dagizan edertasuna gogoan irauliaz. Munduko gauzen askotasunak, Jainkoaren batasun eta argira garoaz.

*Ait a Onaindia*

## ... Garage ETXEITA ,

SOLORAKO TA BASORAKO MAKINAK BANATZAILLEA

Baserritarrak: Onako makinarik bear ba'dozue, merke ta onak etxe onetan aurkituko dozuez.

Urrut. 73 04 64-73 05 38

AMOREBIETA-BIZKAIA